

# SANTIOAK

BIDASOA.HITZA.EUS  
OARSOALDEA.HITZA.EUS

## PASAI DONIBANE 2022

Argazkia: Ainhoa Mariezkurrena

**D**onibaneko Santio Jaiek ohiko osagai guzti-guztiak dituzte. Pasaiako barrutiko jai handiak dira, eta aurten bai, nolabaiteko lasaitasunez eta kalean gozatu ahal izango dituzte sanjuandarrek eta bisitari guztiak. Ohikoa den bezala, Santio Egunaren bezperarekin, etzi beraz, ekingo diote Donibanen urteko bigarren festa aroari (hirugarrena maiatzeko Meipiko jaiak kontuan hartzen badira).

Marian Etxarri, eta Joseba nahiz Xabier Campanok igoko dute igandean udaletxe zaharreko ikurrina. Horrela hasiko dira festak. Hortik aurrera Santio Eguna, Santa Ana, San Pantaleon Eguna, asteburu mamitsua eta San Inazio Eguna izango dituzte aurretik festazaleek. Pasaiako azken jai handiak dira santioak (aurrerago badaude hainbat barrutitan txikiak), beraz, ekainean hasi eta ia abuztura arteko aro oparoak behar bezalako bukaera izan dezan den-dena mimoz prestatu du Donibaneko Jai Batzordeak. Eguraldiak lagun-tzen badu, berriz ere San Juango plazak herritarrenak izango dira. ✕





# HABANERAK



Habanerak plazan, Santa Ana egunean, artxiboko irudian. Antxon Benito

## Donibaneko emakumeek utziriko ondarea, plazara

Merezitako tokia izango dute Habanera eta Batelerek santioen egitarauan. Horien axola historikoaz eta plazaratu aurreko lanaz mintzatu da Maite Etxarri antolatzailea. «Sufritu ere, sufritu dugu».

### OLAI GERENDIAIN RUIZ DE GAUNA

Gaurko 12:00etan hartuko dute abiada 2022ko Santio Jaiek Pasai Donibanen. Ordu horretan omenaldia eta ikurrinari iñoera egingo dute aiton-amonen aterpean Xabino Laboak eta Nekane Puyk. Behin bandera dantzan ekingo diote sanjuandarrek datozen egunetarako prestaturiko jarduera eta ekitaldiez

gozatua hartzen. Horien artean, historiko eta aldarrikatzaitetik asko duten bi hartu ditu ahotan Maite Etxarri sanjuandarrak: Habanerak eta Batelerek. Bataren zein bestearen antolakuntzan buru-belarri murgilduta egon da bizilaguna azken asteotan, eta aitortu du plazara atera aurretik lan nekeza egin behar izan duela bata zein bestearekin; lehen emanaldia desagertzeko arriskutan sentitzera ere heldu da.

«Gutziz kaotikoa izan da», esan du ahoan bilorik gabe, «orokorrean, ez dugu antzeman gogo handirik herrian, eta kanpora jo behar izan dugu Habaneren ikuskizuna salbatzeko». Hamaseigarrena izango da aurtengoa, eta lehenetik azkenera arte egon da plazan Etxarri, hastapenean kantuan, eta gainontzeko urteetan dantzan beti.

Hainbestekoa izan da aurtengo krisialdia, non bere burua behartuta ikusi duen antolatzaileak aurten mutilez jantzita plazaratzeko, beti emakumeen dantza interpretatu izan badu ere.

Ez da lehen urtea dantzaria antolakuntza lanetan murgilduta dagoena; historikoki Rosa Sistiaga sanjuandarrak hartu badu ere Habaneren ardura, 2019an, jada, Etxarri besta bost lagunekin bat egin eta Sistiagak utziriko testigua konpromisoaz hartu zuten.

Eskarmentua bazuten, beraz, aurtengo jaiei begira, baina pandemia tarteko, orotariko oztopoekin egin dutela topo azaldu du: «Gogorra izan da. Herriko mundu guztia mugitzen hasi ginen eta denek ezetz esaten ziguten, batzuk oraindik beldur direlako elkartzeko birusagatik, beste batzuk dagoeneko 80 urtetik gora dituztelako... horiek denek ezetz esan ziguten hasieratik».

Dantzaririk ez ezik, korurik ere ez zuten antolakuntzari ekin ziotenean. Azkenean, 2019an ere zuzendari lanak egin zituen Jose Luis Lopezek baiezkoa eman zien, eta Hendaiako beste pianista batekin, gitarra jotzeko prest agertu zen beste bat, Trintxerpeko bi kontralto, Antxoko tenor bat, Donostiako besteren



## Pasai Donibane

Lezo Bide Kalea, 10 - Tel.: 943 34 60 07 - PASAI DONIBANE

Astelehenetik  
larunbatera  
8:30etik  
20:30era.

Bertako ekoizleekin  
konpromisoa

# Ongi pasa jaietan!



holkularitza asesor

rkasesoria@gmail.com  
943114148 · 663443337  
Donibane kalea, 2 behea  
PASAI DONIBANE

Fiskala

Kontabilitatea

Lana

Aseguroak

Finken Administrazioa



bat... Hortxe lortu zuten abesbatza osatzea. Ez, ordea, aurretik ahalak eta leherrek egin gabe: «Eskualde guztia egin nuen laguntza eske».

40 lagun lortu zituzten eta egin zituzten entseguak, baina odisea ez zen orduan bukatu. «COVID-19 kasuekin batzuk, bestearen senarrari ebakuntza, beste batek alaba gaixo... ez dakit 32 ere izango garen!» [etsipen barrez esan du].

Dantzarako ere, azkenean lortu zuen 20 lagun biltzea, asko eta asko kanpotik bertaratu direnak Donibanera Santa Ana egunean (datorren asteartean), 22:30ean, plazan jendaurrean arituzera. «Gauzak oso eder ikusten dira kanpotik, baina historia gogorrek dituzte atzean; sufritu ere, sufritu du», Etxarrik.

### Ondarea hutsaldu ez dadin

«Iraganean gure amonek dantzatzeko ziztuzten Habanerak. Gure historia da hori, nola ez dugu, bada, mantenduko? 16 urte asko dira pikutara botatzeko!», deitoratu du Etxarrik. «Niretzako gau magikoa da».

### Habanerak desagertzeko arriskutan sentitzera ere heldu dira antolatzaileak

Historiaz ari zela oroitu du Batelaren desfilea [datorren igandean, hilak 31, abiatuko da Meipitik; jarraian, Batelaren ontziratzea eta estropada]. «Gizonak itsasoratzen ziren, eta emakumeak badien gelditzen ziren, lanean». 1962tik herri estropadak egiten hasi ziren horren



Lehenengo Batelaren estropadako argazkia, 1962an. HITZA

omenez, «kristoren jaiak», Etxarriren ustez.

Tinko egin du bat azken horrekin Tomas Arostegik, Yola elkarte antolatzaileko kideak: «Oso giro polita suertatzen da, eta azkenean, lehiakortasuna gutxienekoa da». Hark argi du zer den estropada horien balioa: «Azken finean da hemen emakumezkoek bizitza aurrera ateratzeko sortu zuten lanbide bati omenaldia egitea, benetako borrokalaria zirelako. Euren kargu zituzten agian zazpi seme-alaba, senarra itsasoan... Eta horiek urtero omentzea uste dut garrantzitsua dela».

Azken batelaren estropadan, 2019an, hamabi ontzi uretaratu ziren, eta asebeste, oso, gelditu zen elkarte lortutakoarekin. Hiru urteko geldituaren ostean, baina, Arostegik uste du grina apur bat

indargabetu dela, eta aurreko zaila egiten ari zaie neskak eta emakumeak parte hartzeri animatu daitezkeen.

«Parte hartu duten arraunlariek urte horretan bertan erabakitzen dute hurrengoan izena emango dutela, egindakoarekin pozik. Hiru denboraldi pasata, hoztu dira asmo horiek...».

Hori horrela, Etxarrik Habanerekin bezala, sanjuandarrak parte hartzeri animatu ditu Arostegik ere. ✕



ERASO SEXISTA,  
HOMOFOBO,  
XENOFOBO  
ETA TRANSFORIK  
GABEKO JAIK  
NAHI DITUGU!



Ainhoa Mariezkurrena



### JAIEN HASIERA

**Etzi, 20:00etan.** Gaur, eta etzi eguerditik ekitaldiak badaude ere, 2022ko Santio Jaien hasiera etzi arratsaldean izango da udaletxe zaharrean. Marian Etxarrik, eta Joseba nahiz Xabier Campanok igoko dute ikurrina. Ondoren agurraren txanda izango da.



**EGITARAU  
OSOA  
HEMEN**

labur.eus.oarsoagenda

Olatz Mitxelena



### SANTA ANARA

**Hilaren 26an, 11:00etan.** Oso gutxi dira urtean zehar Santa Anako ermita herritarrentzako zabalik izaten diren egunak. Horietako bat, nola ez, Santa Ana Eguna da. 11:00etan meza nagusia egingo dute, eta ondoren, pintxoen dastaketa txistulariekin.

Olatz Mitxelena



### KUADRILLEN EGUNA

**Hilaren 27an, 19:00etan.** San Pantaleon Eguna Donibaneko kuadrillen eguna da. Ohiko dute kalean sardina jatea egitea, haientzat eta hurbiltzen zaizkienentzat. Santio jaietako unerik ezaguenetakoa da, herrikoiez gain, bisitari askok hartzen dituztelako kaleak.

Andoni Ollokiegi



### OLLOKIEGI, ETXEAN

**Hilaren 26an, 20:00etan.** Andoni Ollokiegi musikari sanjuandarra bidea egiten ari da pasio duen horretan. Herriko festetan ez du hutsik egingo. Bonantzako gunean emanaldia eskainiko du. Beraz, toki eder batean musika onaz gozatzeko aukera izango da.

